

INFORMAZIO OHARRA

Kultura-eskubideak eta kulturaren funtzio eraldatzailea

Iruñean egindako jardunaldian, euskal kultur jardueraren egoerari buruzko txostena aurkeztu da, baita Kultur Eskubideen testuinguruan ekitaldiak antolatzeke protokoloa ere.

Iruñea, 2023ko irailak 20. Iruñeko Kondestableko Jauregian "Kultur kudeaketa eraldaketarako: urrats berrien bila kultur eskubideen marko batetik abiatuta" jardunaldia egin da gaur, irailaren 20, asteazkena. Eusko Ikaskuntzak, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatu dute.

Irekiera ekitaldian parte hartu dute Iruñeko Udaleko Kultura Saileko zuzendari Rudy Goroskietak, Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollok, eta 2021etik Eusko Ikaskuntzak bultzatzen duen "Eskubide Kulturalak: parte-hartze eta gobernantzarako politikak" proiektuko talde zientifikoaren izenean Miren Epalzak.

Eusko Ikaskuntzarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenari balioa eman dio Goroskietak, eta azpimarratu du bi erakundeei aukera ematen diela "Iruñeko gizarteari eta Nafarroako gizarteari ezagutza eta balio-proposamenak sortzeko".

Bestalde, Urkizak lanen zentzu praktikoa nabarmendu du: "Ez gara plano teorikoan bakarrik mugitzen, baizik eta gure agente, ekintzaile eta sortzaileek nola bizi duten eta zer gabezia dituzten eta etorkizunean zer proiektio izango duten sakontzea interesatzen zaigu". Halaber, iragarri du kultura eskubideei buruzko lan-programa eta jardunaldiaren ondorioak Eusko Ikaskuntzen 19. Biltzarrera eramango direla proposamen gisa. Kongresua 2024ko udazkenean egitea aurreikusten da.

Ollo kontseilariak Nafarroako Gobernuak Eusko Ikaskuntzarekin duen lankidetzak azpimarratu du – 2023an eguneratu da hitzarmen bidez –, egungoa bezalako topaketa bat egin ahal izateko. Era honetako jardunaldiak erakundeen ordezkarien, gizarte zibilaren eta euskararen inguruko eragile teknikoaren arteko topagune gisa balio dutela uste du, "iraganarekin, baina, batez ere, orainarekin eta etorkizunarekin, gurea bezalako gizarte anitz eta askotarikoan".

Lehendakariordeak, berak kudeatzen duen departamenduan baitago Euskarabidea, gaineratu du mahai ezberdinetan landuko diren gai batzuk, hala nola “ebaluazioa, parte-hartzea eta kultur programazioa bera, gaur egun hizkuntzaren eta, oro har, kulturaren garapenari zorrotasuna eta euskarri teknikoak ematen dioten elementuak” direla.

Miren Epalzaren sarreraren ostean, lehen zatian Beñat Gaztelurrutiak egindako kultura eskubideen egoerari buruzko txostena aurkeztu da. Lurralde eta esparruen historia, eskubide, sorkuntza, edizio eta antolaketako adituekin egindako elkarrizketetan oinarrituta, txostenak euskal kultura-jardueraren egoera aztertzen du, eskubideen ikuspuntutik. Autoreak adierazi duenez, “esplorazio-ikerketak bat da, gehienez ere”, eta, hala ere, kultura-eskubideen eta kulturaren inguruan kontuan hartu beharreko oztopoak, kezkak eta lan-ildoak adierazten ditu, elementu eraldatzaile gisa.

Hain zuzen ere, kultura eraldatzailea zer den zehazteko, mahai-ingurua egin da, eta kultura-kudeaketan adituak diren hiru pertsona bildu dira: Marcos García Cristóbal (kultura-kudeatzailea, hiri-laborategien eremuan), Leire San Martín Goikoetxea (arte garaikideko hezitzailea eta programatzailea) eta Nieves Beloki (KUNA-Nafarroako kultura-kudeaketako profesionalen elkarte). Iratxe Retolazak gidatu duen elkarrizketan hiru ardatzetan sakondu da: kulturaren funtzio eraldatzailea, gobernantza eta kudeaketa publikoko ereduak eta parte-hartzea.

Jardunaldiaren bigarren zatian, Maialen Akizu soziologoak kultura-eskubideen testuinguruan ekitaldiak antolatzeke protokoloa aurkeztu du. Protokolo honen helburua da kultura-kudeaketako praktika onak eta prozedurak erakustea, kultura-eskubideetan aurrera egiteko, parte-hartzea sustatzeko eta lan-harremanak eta kudeaketa-praktikak hobetzeko.

Oraindik zirriborro-fasean dagoen protokolo horrek “Kultur antolakuntzan praktika onak zelan bermatu” gaiari buruzko eztabaida bizia piztu du.

NOTA INFORMATIVA

Derechos Culturales y función transformadora de la cultura

En la Jornada celebrada en Pamplona se ha presentado un informe sobre la situación de la actividad cultural vasca, así como un protocolo para la organización de eventos en el contexto de los Derechos Culturales

Pamplona, 20 de setiembre de 2023. Hoy, miércoles 20 de setiembre, en el Palacio del Condestable de Pamplona se ha celebrado la jornada Gestión cultural para la transformación: en busca de nuevos pasos desde un marco de Derechos Culturales, convocada por Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, Ayuntamiento de Pamplona y Gobierno de Navarra.

La apertura institucional ha estado a cargo de Rudy Goroskieta, director del Área de Cultura del Ayuntamiento de Pamplona, Ana Urkiza, presidenta de Eusko Ikaskuntza, y Ana Ollo, vicepresidenta segunda del Gobierno de Navarra y consejera de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera que ha cerrado el acto de apertura institucional de la jornada, antes de que Miren Epalza, integrante del equipo científico del proyecto “Derechos Culturales: políticas de participación y gobernanza” que desde 2021 impulsa Eusko Ikaskuntza, detallara más su contenido.

Goroskieta ha puesto en valor el convenio de colaboración firmado con Eusko Ikaskuntza y ha subrayado la oportunidad que brinda a ambas entidades para “generar conocimiento y propuestas de valor para la sociedad pamplonesa, y también para la sociedad navarra”.

Por su parte, Urkiza ha destacado el sentido práctico de los trabajos que realizan: “no nos movemos solo en un plano teórico, sino que nos interesa profundizar en cómo viven y qué carencias observan nuestros agentes, activistas y creadores/as, y cuál es su proyección a futuro”. Asimismo, ha anunciado que el programa de trabajo sobre Derechos Culturales y las conclusiones de la jornada se trasladarán en forma de propuesta al 19 Congreso de Estudios Vascos, cuya celebración está prevista en otoño de 2024.

La vicepresidenta Ollo, que también ha resaltado la colaboración que mantiene el Gobierno de Navarra con Eusko Ikaskuntza -actualizada en 2023 mediante convenio- para posibilitar la celebración de un encuentro como el actual, considera que este tipo de jornadas sirven de punto de encuentro entre representantes institucionales, sociedad civil y actores técnicos en torno al euskera como un “valor cultural con pasado, pero, sobre todo, con presente y futuro en una sociedad plural y diversa como la nuestra”.

La vicepresidenta, a cuyo departamento pertenece Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, ha añadido que algunas cuestiones que se van a trabajar en las distintas mesas como la evaluación, la participación y la propia programación cultural son elementos que a día de hoy dotan de rigor y soporte técnico al desarrollo de la lengua en particular y de la cultura en general.

Tras la introducción a la jornada por Miren Epalza, en la primera parte se ha presentado un informe sobre la situación de los Derechos Culturales elaborado por Beñat Gaztelurrutia. A partir de entrevistas con especialistas en historia, derecho, creación, edición y organización de los diferentes territorios y ámbitos, el informe toma el pulso a la situación de la actividad cultural vasca desde el punto de vista de los derechos. Tal como ha señalado su autor, “se trata a lo sumo de una investigación exploratoria” que sin embargo apunta obstáculos, inquietudes y líneas de trabajo a seguir en torno a los Derechos Culturales y la cultura como elemento transformador.

Precisamente la definición de lo que es la cultura transformadora ha centrado la mesa redonda que ha reunido a tres personas expertas en gestión cultural: Marcos García Cristóbal (gestor cultural en el ámbito de los laboratorios ciudadanos), Leire San Martín Goikoetxea (educadora y programadora en arte contemporáneo) y Nieves Beloki (KUNA-Asociación de Profesionales de la Gestión Cultural de Navarra), con dinamización de Iratxe Retolaza. En el diálogo se ha ahondado en tres ejes: función transformadora de la cultura, modelos de gobernanza y gestión pública, y participación.

En la segunda parte de la Jornada, la socióloga Maialen Akizu ha presentado un protocolo para la organización de eventos en el contexto de los Derechos Culturales. El objetivo de este protocolo es visibilizar una serie de buenas prácticas y procedimientos de gestión cultural al objeto de avanzar en los Derechos Culturales, fomentar la participación y mejorar las relaciones laborales y las prácticas de gestión.

Este protocolo, que aún se encuentra en fase de borrador, ha nutrido el vivo debate que se ha abierto a continuación en torno al tema “Cómo garantizar las buenas prácticas en la organización cultural”.